



**NORK:** SPRLko SEGURTASUN ARLOKO ARDURADUNA: Marivi Carazo Alcubilla  
**NORI:** IKASTETXEETAKO ZUZENDARIA, SEGURTASUN LAGUNTZAILEA

Zuzendari / Segurtasun laguntzaile Jn/And:

Lehendabizi **ESKERTU** zuen partehartzea 2019-2010 ikasturteko simulakroetan. **Emaitzak:** 398 simulakro eta 114.779 partehartzaile

Primero de todo **AGRADECEROS** a todos, -as los y las participantes por los ejercicios de simulacro del curso 2019-2020. **Resultados:** 398 simulacros y 114.779 participantes

2020-2021 ikasturte honetarako ariketa:

Ejercicio para el curso 2020-2021:



Posible den neurrian **ESKATZEN DIZUEGU:**  
Ikastetxeetan simulakro-ariketa 2021eko urtarrila amaitu baino lehen prestatu eta egitea.

Aldez aurretik eskerrak emanez,

Os **SOLICITAMOS** en la medida de lo posible:  
Realiceis este ejercicio de simulacro en los centros antes de finales de enero 2021.

Agradeciendo de antemano vuestra colaboración,

Vitoria-Gasteiz, 2020.eko azaroaren 27an

Izpta/ Fdo.: Marivi Carazo Alcubilla

## Sarrera

Covid-19 pandemiaren egungo egoerak esposizioa eta kutsadurak gutxitzeko prebentzio neurriak ezartzen ditu. Aldi horretan, ikastetxea berehala ebakutzea eskatzen duten beste larrialdi batzuk gerta litezke, ikastetxea berehala ebakutu beharra suposatuko luketenak. Egoera horiek erantzuteko eta erabakiak hartzeko gaitasuna eskatzen dute, besteak beste, eraikin osoa edo zati bat modu ordenatuan husteko gaitasuna.

2020-2021 ikasturte honeta ikastetxeek **mahai-simulazio** bat egingo dute, **mahaigainekoa edo kabinetekoa** ere deitua. Informazioa erabiltzeko eta **rolak jokatzeko ariketa** bat da. Simulakroaren modalitate hau trebakuntza, prozesuen ebaluazioa eta erabakiak hartzeko, taldean lan egiteko eta koordinatzeko ariketa, mobilizazioaren arriskuak bere gain hartu gabeko ariketa.

## Helburuak

Simulazio honetan ez da erabili nahi **alarma- eta ebakuazio-ekipoen** erantzuna, baizik eta **Larrialdi Planean** ezarritako prozedura batzuk berrikusi.

1. Alerta/alarma behar bezala transmititzen dela egiaztatzea:
  - a. Larrialdiaz jabetzen den pertsona
  - b. Kontrol-zentroko pertsona
  - c. Larrialdia egiaztatzea.
  - d. Ikastetxean dagoen persona oro
  - e. SOS Deiak 112 zerbitzura deitzea
2. Ibilbide bakoitzak irteteko izan ditzakeen zailtasunak identifikatzea (oztopoak, seinaleztapen eskasa)
3. Langile/ ikasle guztiek ebakuazio-bideak (korridoreak, eskailerak eta kanporako irteerak) beren lantokitik /ikastokitik ezagutzen duela egiaztatzea



4. Elkargunea egokia den ala ez egiaztatzea, (larrialdi-eremutik nahiko urrun , Covid 19k ezarritako baldintzetan: burbuila taldeak jendea hartzeko behar besteko tokia).
5. Ariketaren faseen denbora egiaztatzea

### **Simulakroaren faseak**

- 1-** Prestaketa-fasea: Mahai-simulazioa baino lehenagoko zereginak
- 2- Ariketa gauzatzea: metodologia, rolen adibideak, timing
- 3- Parte-hartzaileen papera ebaluazioa eta mahai-simulazioaren helburuen betetze-mailaren ebaluazioa

## 1) Mahai-simulazioa baino lehenagoko zereginak

**Lantalde bat** ezartzea eta honako zeregin hauen arduradunak izendatzea, baita horiek gauzatzeko data ere.

ARIKETA BAINO LEHENAGOKO ZEREGINAK		Izen abizenak	Data
<b>Botikinak</b>	Berrikustea, behar izanez gero eskatu. Plano edo krokis batean kokatzea : <a href="https://www.mutualia.eus/es/servicios/botiquines/">https://www.mutualia.eus/es/servicios/botiquines/</a>		
<b>Su -itzalgailuak</b>	Egiaztatzea ondo daudela eta urteko berrikuspena pasatu dutela (Etiketari dago). Mantenu enpresarekin harremanetan jarri behar izatekotan. Plano edo krokis batean kokatzea.		
<b>Alarma sistema</b> (Hala dagokionean)	Urteko mantenua egina dagoela egiaztatzea Mantenu enpresarekin harremanetan jarri behar izatekotan. Plano edo krokis batean kokatzea.		
<b>Ebakuazio-bideak Larrialdietako irteerak</b>	Oztoporik gabe daudela eta larrialdietako irteerak erabilgarri. Plano edo krokis batean kokatzea.		
<b>Elkargunea(k)</b>	Elkarguneak ezartzea eta egiaztatzea toki nahikoa dela. Plano edo krokis batean kokatzea.		
<b>Larrialdi-hipotesiaren gidoia eta eszenatokia prestatzea</b>	Ariketaren larrialdi-hipotesia erabakitzea (data, eguna, ordua..) eta gainerako parte-hartzaileei EZ jakinaraztea ariketaren unera arte	Segurtasun laguntzailea Zuzendaria	
<b>Larrialdi ebakuazio Plana eta</b>	Berrikustea, Covid 19ra egokitu eta Ikastetxeko gainerako langileei mahai-simulakroaren berri eman eta berrikusitako larrialdi-plana zabaltzea		
<b>Simulakroari buruzko informazioa eta kontsultak</b>	Covid-19ren inguruan prestatzeko eta ebakutzeko moduari buruzko informazioa. <a href="#">Ariketa honekin lotutako edozein zalantza argitzeko, erabili <b>esteka hau</b></a>	LAPZ segurtasun arloko arduraduna Marivi Carazo	2020 AZAROA
<b>Jarraibideak eta ebaluazio-tresna prestatzea</b>	<a href="#">Web orrian eta formulario honen bidez</a>		

## 2) Mahai-simulazioa

- Ariketa hau honako **aukera hauen bidez** egin ahal izango da:
  - a) **Elkarkomunikatutako hainbat lekutan**: Konexio birtuala ( Teamsen edo beste batzuen bidez)
  - b) **Gune itxian biltzea**: Egokiena 5 pertsona edo gutxiago izatea da: Zuzendaria, segurtasun laguntzailea, zonaldeko koordinatzaileak. Aukeratu leku bat behar besteko espazioarekin, ahalik eta distrakzio gutxien eta beharrezko den materialarekin: simulakroaren aurrerapena simulatzea ahalbidetzen duten planoak, telefonoa, zerrendak, ordenagailua... eta prebentzio-neurriak jarraituz: Maskara, eskuak, distantzia, aireztapena... gizarte-distantziaren pilaketak edo urratzeak saihesteko.
- **Gauzatzea**
  - ✓ Moderatzaileak parte-hartzaile bakoitzari lan-metodologia eta simulazio pertsonaaren zehar komunikatzeko jarraibideak azaldu eta rolak esleitzen dizkio.

Partehartzaileen rola	Izen abizenak
Moderatzailea, simulakroaren koordinatzailea	Larrialdi burua: Segurtasun laguntzailea
Larrialdia detektatzea	Edozein
*Egiatzea larrialdia *Larrialdi-mota deklaratu * Aktibatu plana	Zuzendaria
SOS Deiak 112arekin komunikazioa	Zuzendaria, segurtasun laguntzailea
<b>Kontrol-zentroa:</b> Tokia edo persona larrialdian biltzen dituen informazio guztia: Abisuak eman, kanpoko laguntekin harremanetan jarri, beti zuzendariarekin bat.	Idazkaritza, Atezaintza
Barneko komunikazioa: Alarma aktibatzea	Zuzendariak esaten duena
<b>Laguntza-taldea:</b> Igogailua blokeatzea.- Ebakuazio bideak oztopoz garbitzea, kanporako irteerak ireki- Kanpoko laguntzak ikastetxearen sarrera erraztea- Larrialdia egoeran ez uztea inor sartzen.	Atezaina, bedela
Ebakuazioa	*Zona, korridorearen arduraduna *Bere kargupean ikasleak dituzten irakasleak *Ikasle barik dauden dozentek eta ez dozentek (Laguntza Berezia behar duten opertsonen arreta)
Larrialdia amaitu dela deklaratu du	Segurtasun laguntzailea



SOS Deiak 112arekin komunikazioa. Simulakroaren amaieraren abisua	Zuzenaria
Ebaluazioa	Bileran egondako partehartzaileak

- ✓ Moderatzaileak -larrialdiaren egoera hipotetikoa aurkezten du eta simulakroari hasiera ematen dio.
- ✓ Moderatzaileak parte-hartzaileei egoera simulatuko gertaeren berri ematen die, **mezuen bidez**, arazoak planteatuz eta jarraibideak jakinaraziz. Mezu horiek sekuentzialki entregatzen dira, **ahoz, inprimatuta edo elektronikoki**, ekitaldian zehar.
- ✓ Gidoia egiterakoan, erabakiak mobilizaziorik gabe hartzea dakarten ekintza errealistak gehitzea proposa daiteke. (Adibidez: 2 ikasle gela batean izuan, ez da alarmerik entzuten sukaldean, ikaslea bainugeletan ...)
- ✓ Parte-hartzaile bakoitzak esleitutako paperaren arabera **baino ez du** jarduten. Erabakiak hartzen ditu edo ekintzak gauzatzen ditu, mezuen bidez agertzen zaizkion egoeren arabera.
- ✓ Egin beharreko ekintza batzuk **benetakoak** izango dira (112ra deitu, alarma aktibatu...) eta beste batzuk **simulatuak** (taldeak ikastetxetik lekualdatzea dakartenak). **Ebakuazio fisikoa EZ da inola ere modu errealean egingo simulazio honetan.**
- ✓ Alarma entzun ondoren, ikasleak ardurapean dituzten **ikasgela eta tailerretako irakasleak** ez dira klasetik aterako. **Zonaldeko koordinatzailea** ikasgelara eta tailerrera joan arte itzarongo dute, eta zer lan egin behar duten adieraziko die.
- ✓ **Ikaslerik gabe dauden irakasleak eta beste langileak (Dozente, ez dozentek** Aurrekoaren antzekoa.
- ✓ Moderatzaileak -ariketa zuzentzen du, eta **une bakoitzean** esku hartu behar duten parte-hartzaileei bidea ematen die, horiek dagozkien ekintzak/komunikazioak gauzatzen dituzte.



- ✓ **Ekintza errealetarako**, ekintza bakoitzaren arduradunak eta moderatzaileak ekintza bakoitzean gertatutakoa (**I. eranskina**) berretsi arte itxarongo da, gainerako ekintzen sekuentziarekin jarraitu aurretik.
- ✓ Parte-hartzaileek edozein unetan hitz egiteko txanda dezakete eskua fisikoki altxatuz, edo birtualki bada, aplikazioaren bidez.
- ✓ Simulazioa egiten den bitartean iritzirik, oharrik edo iruzkinik ez egitea gomendatzen da, iruzkinak idatzi eta ekitaldiaren amaieran tratatu behar dira.
- ✓ Timing.ean (I. eranskina) zehaztu dauden jarduerak egin ondoren, moderatzaileak -simulazioa amaitutzat ematen du.

### Eredua: Ariketan mezuetarako txartela

<b>Mezuaren zenbakia:</b>		<b>1</b>	
<i>NORK igorri:</i>	<i>Zonaldeko koordinatzailea. Izena:</i> <b>ANDONI OTAOLA MARIN</b>		
<i>NORI: Zonaldea, ikasgela, tailerra:</i>	<b>2 – A DBH . 2 .solairua</b>	Data:	<b>2020/12/01</b>
<i>Gela, arduraduna:</i> zonaldeo	<b>MIREN SOLABARRIA ZERAUN</b>	Ordua:	<b>9:30</b>
<b>Mezua</b>			
<i>Alarma entzun da?</i>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	
<i>Larrialdietako atea, talde honek erabiliko duen atea</i>	<b>Ate nagusia</b>		
<i>Elkargunea</i>	<b>Lorategia, hesiaren atzean</b>		
<i>Zonaldean, gelan ebakutzeko zenbat ikasle/ lagun?</i>	<b>20</b>		
<b>Oharrak:</b> <b>XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX</b>			
<b>Behar adina txartel presta daitezke. Gorriz idatzitako letrak irakasleak -zonako, gelako arduradunak erantzuten dituenak dira.</b>			



Solairuko koordinatzaileek zonako, gelako, lantegiko arduraduna den irakasleari eman beharko diote txartel hori, ariketa koordinatzen den gelara itzuli aurretik beteta jaso beharko dute. Gelan daudenean, moderatzaileari emango diote, ebaluazioa egiten den unean azter dezan. Informazioa modu telematikoan eman ahal izango zaio moderatzaileari, ekitaldia modu birtualean eginez gero.

- 3) Parte-hartzaileen papera eta mahai-simulazioaren helburuen betetze-mailaren ebaluazioa: [lotura](#)



**I. ERANSKINA: TIMING DEL SIMULAKROAREN TIMINGA+ EBALUAZIOA: Gehieneko iraupena: Ordu 1.**

Aurreikusitako ordua	Benetako ordua	Moderatzaileak ematen dituen MEZUAK- Ekintzen sekuentzia kronologikoa	R / S	Baliabidea	Ardura duna	Egindako ekintza eta lotutako beste datu batzuk. Koordinazio-bileran parte hartzen dutenek bete beharrekoak
		Larrialdiaren detekzioa jakinarazteko deia jasotzen da	R	Telefonoz		
		Larrialdia egiaztatu eta plana aktibatzen du	R	Aurrez aurre. Ahoz		
		Jakinarazi SOS-Deiak 112 zerbitzuari	R	Telefonoz		
		Barneko Komunikazioa: Alarma aktibatu	R	Aurrez aurre. Ahoz		
		Oztoporik gabeko bideak eta irteera erabilgarriak egiaztatzea	R			
		Ebakuazioa	S			
		Zonaldeko koordinatzaileek bere eremuetara joan eta ikasgela, jantoki, tailerretako arduradunei egin beharreko lana adierazten diete ( <b>1. mezua</b> )	R			
		Bere ardurapean ikasleak dituzten irakasleek, langileek zonaldeko koordinatzaileak esaten dion zeregina egiten dute. Galderak erantzun eta momentuan entregatzen ditu	R	Aurrez aurre idatziz		
		Ikasle barik dauden langileak (dozenteak zein ez dozenteak) Larrialdi buruaren esanetara jarri	S			
		Larrialdia amaitutzat eman	R	Aurrez aurre. Ahoz		
		SOS Deiak 112 komunikazioa. Simulazioaren amaieraren abisua	R	Telefonoz		
		Simulakroaren ebaluazioa	R	Aurrez aurre Formulario web		